

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
37/2008	R20/2011	2011/07/26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Nafarroako Foru Erkidegoa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

R 20/2011 ebazpena

37/2008 espedientea

Gasteizen, 2011ko uztailaren 26an

Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada (lehendakaria) eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese (kideak) kideekin, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Nafarroako Foru Erkidegoaren Zerga Administrazioaren aurka planteatutako gatazkari buruzkoa; (ENTITATEA 1), S.L. (IFK:B----) entitateak 2002ko abenduaren 30etik aurrera zerga helbidea non duen zehaztearen gainekoa da gatazka hori; data horretan, entitateak zerga egoitza Nafarroatik Beasainera (AAA kalea, nn, Gipuzkoa) eraman zuen 2004ko abenduaren 17ra arte, egun horretan bere helbide soziala BBB kalera eraman baitzuen, udalerrri berean.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatu zuen 2008ko ekainaren 11ko idatziaren bidez –hurrengo eguneko sarrera erregistroa Arbitraje Batzordean–. Idatzi horretatik ondorioztatzen dira honako aurrekari hauek:

1. (ENTITATEA 1), S.L. (IFK: B----) entitatea Gasteizen eratu zen 1984ko abenduaren 3an eta helbide soziala Nafarroan ezarri zuen.
2. 2002ko abenduaren 30eko eskrituraren bidez, entitate horrek bere egoitza soziala Nafarroatik Beasainera (Gipuzkoa) aldatu zuen.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuaren Ikuskaritzak entitate horrek aitortutako helbide soziala egiaztatu zuen, 2002ko irailaren 30etik aurrera Beasaingo AAA kaleko nn-an zegoena (Gipuzkoa). Helbide hori, ondoren, 2004ko abenduaren 17ko eskrituraren arabera, udalerrri

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
37/2008	R20/2011	2011/07/26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Nafarroako Foru Erkidegoa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

horretako BBB kaleko ññ-ra aldatu zen. Azken helbide hori, adierazitako datatik aurrera, entitatearen zerga helbide gisa onartu zen. Beraz, (ENTITATEA 1), S.L.ren helbidearen inguruko eztabaida 2002ko irailaren 30etik 2004ko abenduaren 17ra bitarteko aldiari dagokio.

4. Egiatzapen horren ondorioz, (ENTITATEA 1), S.L.ren zerga egoitza orduan bere egoitza zenetik (AAA kalea, nn, Beasain, Gipuzkoa) Nafarroara aldatzeko prozedura hasi zen, ulertu zelako entitate horren administrazio kudeaketa eta negozio zuzendaritza Nafarroako Foru Erkidegotik burutzen zirela.

2. 2008ko irailaren 12ko bileran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen gatazka hau izapidetzeko onartzea eta (ENTITATEA 1), S.L.ri eta Nafarroako Gobernuari jakinaraztea.

3. 2008ko azaroaren 7an, Nafarroako Gobernuak idatzia igorri zion Arbitraje Batzordeari – azaroaren 10ean eman zitzaion sarrera– eta, bertan, honako hau baieztatzen zuen: bat, Itunaren Arbitraje Batzordeak ez duela eskumenik Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Zerga Administrazioaren artean sor daitezkeen gatazkak ebazteko, adieraziz, amaitzeko, aipatutako gatazka administrazioarekiko auzibidean konpondu beharko litzatekeela; nahiz administrazioek sustatu nahiz, adibide gisa, gatazka negatiboa balitz, partikularrek sustatu; bi, Itunaren Arbitraje Batzordeak eskumenari uko egin dionez, ez dira eman Nafarroako Foru Erkidegoak gatazka eragiten duen gaiaren hondoren inguruan duen jarreraren oinarriak.

4. Espedientea amaitu eta helarazi ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazioak egin zituen, 2009ko apirilaren 24ko idatziaren bidez –hurrengo egunean eman zitzaion sarrera erregistroan–. Nafarroako Foru Erkidegoak 2009ko apirilaren 7an aurkeztu zituen. (ENTITATEA 1), S.L.k ere alegazioak aurkeztu zituen, 2009ko apirilaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren uziaren aurka azaltzeko.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
37/2008	R20/2011	2011/07/26	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Nafarroako Foru Erkidegoa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Arbitraje Batzordeak erabaki beharrekoa da (ENTITATEA 1), S.L. (IFK: B31146061) entitateak non zuen zerga helbidea 2002ko abenduaren 30etik 2004ko abenduaren 17ra bitartean.

2. Hala eta guztiz ere, auzi hori aztertu aurretik, Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumenik ez duenaren inguruan Nafarroako Gobernuak aurkeztutako alegazioa aztertu behar da; honako hauek dira argudioak:

1. Ez Hitzarmenak ez Itunak ez dute biltzen Arbitraje Batzordeak Euskadiko lurralde historikoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko gatazkak ebatz ditzaketenik.
2. Kontuan izan behar da Hitzarmenak nahiz Itunak Estatuarekin duten alde biko izaera eta horien artikuluetan ez dagoela lurralde historikoen eta Foru Erkidegoko zerga administrazioaren arteko lotura edo harreman "horizontalik". Horrez gain, Hitzarmenak Nafarroan egiten duen bezala, Itunak arautzen ditu Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko –osotasun gisa hartuta– administrazioaren arteko finantza eta zerga harremanak. Barnean lurralde historikoak egoteak ez du harreman horien izaera lausotu edo desbirtuatu behar.
3. Egungo arauak eragiten dute Hitzarmenaren eta Itunaren arbitraje batzordeek ezin ebatzi izatea Euskadiko lurralde historikoen eta Foru Erkidegoaren arteko gatazkak, horien eskumenak kaltetu gabe. Ildo horretan, baieztatzen du Itunaren Arbitraje Batzordeak gatazka hau ebaztea Nafarroaren zerga eskumenaren inbasio guztiz bidegabea izango litzatekeela. Horrez gain, Nafarroa ez da autonomia erkidegoa, foru erkidegoa baizik, eta desberdina da.
4. Itunak foru aldundiek autonomia erkidegoen (eta ez foru erkidegoaren) aurkako gatazkak aurkezteko aukera emateak ezin du Itunaren eta Hitzarmenaren funtsezko printzipioen aurkakoa izan: Euskadiren eta Estatuaren arteko finantza

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
37/2008	R20/2011	2011/07/26	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Nafarroako Foru Erkidegoa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

eta zerga harremanen erregulazio bilateral eta eskusiboa, alde batetik; eta Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, bestetik.

5. Hitzarmenaren 51.1.b) artikulua nahiz Itunaren 66.Bat.a) artikulua errealitate juridikoak ezartzen duen ildoan interpretatu behar dira, eta errealitate horren oinarria da ez Hitzarmenetik ez Itunetik ez direla ondorioztatzen Euskadiko lurralde historikoen eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko harreman horizontalak.
6. Hitzarmenaren eta Itunaren akordio izaerak eskatzen du, asmoa bada arbitraje organo batek ebaztea lurralde historikoen eta Foru Erkidegoaren arteko zerga gatazkak, adostu eta arau horietan jasotzea.
7. Ez litzateke eraginkorra izango Itunaren Arbitraje Batzordeak Nafarroako Zerga Ogasunaren inguruan hartutako edozein erabaki, batzorde hori ez baitago Hitzarmenean jasota. Hitzarmenaren Arbitraje Batzordeak edo justizia auzitegiek soilik utzi dezakete indarrrik gabe Nafarroaren Zerga Ogasunaren erabaki bat.
8. Amaitzeko, Nafarroako Gobernuak adierazten du gatazka administrazioarekiko auzibidean ebatzi behar dela.

3. Gipuzkoako Foru Aldundia ez dago Nafarroako Gobernuaren argudioekin ados, horregatik, alegazio idatzian, honako hau erantzuten du:

- a) Ekonomia Itunaren 66. artikulua ez ditu Arbitraje Batzordearen jardura esparrutik kanpo uzten Nafarroako Foru Erkidegoaren inguruan sor daitezkeen gatazkak eta, ondorioz, erkidego hori manuan jasotzen den “beste edozein autonomia erkidego” espresioan sartu behar da.
- b) Ekonomia Ituna Estatuaren eta Euskadiren artean aplikatzerakoan, Nafarroako Foru Erkidegoa “Estatuaren” parte da (erregimen komuneko lurraldea) ondorio guztietarako, bai eta Arbitraje Batzordeari eskumenak esleitzeko ere.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
37/2008	R20/2011	2011/07/26	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Nafarroako Foru Erkidegoa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

- c) Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak gogoratzen du, Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Ekonomia Hitzarmenaren Arbitraje Batzordeak berak, apirilaren 4ko ebazpenean (17/2007 prozedura), hitzarmen horren 18.2 artikuluko “erregimen komuneko lurraldea” kontzeptuaren interpretazioaren inguruan sustatutako gatazka baten inguruan, adierazi zuela kontzeptu hori Nafarroako Foru Erkidegoa ez gainerako Espainiako lurralde osotzat hartu behar zela. Hori Euskadirekin duen Ekonomia Itunera eramanda, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldea ez den Espainiako lurralde guztia sartu behar da manu horretan eta, ondorioz, bai eta Nafarroako Foru Erkidegoa ere.
- d) Nafarroako Gobernuak proposatzen du gatazka hau ebazteko administrazioarekiko auzibidera jotzea eta aukera hori Itunaren 67. artikulua azken paragrafoan jasotzen da, baina betiere Itunaren Arbitraje Batzordeak, ebazpen bidez, gatazka zuzenbidearen arabera kotzat jo ondoren.

4. Auzi hau ebazteko, Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakora jo behar dugu eta honako funtzio hauek esleitzen dizkio Arbitraje Batzordeari:

“a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo hauen eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai tributu itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”.

5. Arbitraje Batzordearen Araudiaren –2007ko abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua– 11. artikulua ere kontuan izan behar da; Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunaren –2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartua– 65, 66 eta 67. artikulua garatzen ditu eta ezartzen du foru aldundiek, Eusko Jaurlaritzaren

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
37/2008	R20/2011	2011/07/26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Nafarroako Foru Erkidegoa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Ogasun eta Herri Administrazio Sailari jakinarazi ondoren, gatazkak sustatu ahal izango dituztela (...). d) Ekonomia Itunean bildutako arauen aplikazioa dela-eta, zergadun batek bere zerga-helbidea foru-lurraldean edo lurralde erkidean duela irizten dionean eta Estatuko edo autonomia-erkidego bateko administrazioa ados ez dagoenean.

6. Bestalde, Ekonomia Ituneko manu bakar batek ere ez du guztiz baztertzen Arbitraje Batzordeak Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Euskadiko foru aldundien arteko gatazkez arduratzeko eskumena duenik. Indarrean dagoen itunean, 1981eko maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onartutakoan bezalaxe, hasierako idazketan nahiz 1997ko abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak emandakoan, ezartzen du Arbitraje Batzordeak eskumena duela honetarako:

“Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”. 66.Bat artikulua c) letrak ez du argitzen zein izan behar duten gatazkako administrazioak, baina artikulua bereko a) letran “Estatuko Administrazioaren eta foru aldundien artean edo hauen eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak” aipatzen baditu, ez dago arrazoirik –interpretazio logiko eta sistematikoa egiten bada– zergadunen egoitzen inguruko gatazketatik kanpo uzteko Euskadiko edozein lurralde historikoren eta Nafarroaren artean gertatutakoak.

7. Gure interpretazioa babesteko, Auzitegi Gorenaren 4196/2009 Epaia, 2009ko maiatzaren 26koa –365/2008 errekurtsioa– aipa daiteke, hain zuzen ere, Ekonomia Hitzarmenaren Arbitraje Batzordearen 2008ko apirilaren 4ko ebazpenari buruzkoa – Gipuzkoako Administrazioak bere alegazioetan aipatzen du–; epai horretatik ondorioztatzen da Hitzarmenaren ikuspegitik (edo, kasu honetan, Itunarenetik), gainerako autonomia erkidegoek, ondorio horietarako, tratamendu bera dutela.

8. Auzi honen hondoari dagokionez, gogoratu behar dugu Ekonomia Itunaren 43. artikulua laugarren ataleko b) letraren arabera, itunaren ondorioetarako ulertuko dela zerga helbidea Euskadin dutela “Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren mendean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, betiere, sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
37/2008	R20/2011	2011/07/26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Nafarroako Foru Erkidegoa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

eta negozioen zuzendaritza edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilita bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan”.

9. Halaber, kontuan izan behar dugu Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikulua arabera, Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango duela. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, jakin beharreko aurrekariak erantsita, eta bi hilabeteko epea emango dio egoitza aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko. Besteak proposamenari baietza ematen badio, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio. Kasu honetan, egoitza aldaketaren proposamena Nafarroako Ogasunak berariaz ezetsi zuenez (espedientearen 177 orrialdeetatik 150-160. or.), ezinbestekoa da, 43. artikulua bederatzigarren atalaren azken paragrafoaren arabera, egoitza aldatzeko prozedurarekin jarraitzea artikulua beraren seigarren atalean ezarritako eran; honako hau dio seigarren atal horrek: “Zergapekoen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean auziak sortzen baldin badira, Arbitraje Batzordeak konponduko ditu arazoak, zergapekoek diotena entzun ondoren. Arbitraje Batzorde hori ekonomia-itun honen III. kapituluko 3. atalean dago araututa”.

10. Auzia ebazteko datu garrantzitsuak dira (espedientearen 177 orrialdeetatik 130-131, 141-144, 150-160 eta 161-164. orrialdeak) honako hauek:

a) (ENTITATEA 1), S.L. entitatea 1984ko abenduaren 3an eratu zen eta zerga egoitza Torranon (Nafarroa) ezarri zuen; administratzaile solidario izendatu zituen (Izena eta abizenak 1) jauna eta (Izena eta abizenak 2) jauna, bakoitza entitatearen kapital sozialaren 100eko 50en titular izanik eta helbidea Torranon zutela.

b) 2002ko abenduaren 30eko eskrituraren bidez, (ENTITATEA 1), S.L. entitateak bere egoitza soziala Nafarroatik Beasainera (Gipuzkoa) aldatu zuen.

d) Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak eskatuta, Ikuskaritzak (ENTITATEA 1), S.L.k 2002ko abenduaren 30etik aurrera aitortutako egoitza soziala egiaztatu zuen eta, horren

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
37/2008	R20/2011	2011/07/26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Nafarroako Foru Erkidegoa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ondorioz, zerga egoitza Gipuzkoatik Nafarroara aldatzeko prozedura hasi zen, (ENTITATEA 1), S.L.ren administrazio kudeaketa eta negozio zuzendaritza Nafarroan burutzen zirela jo zelako. Aldaketa proposamena berariaz ezetsi zuen Nafarroako Gobernuak, bere ustez entitatearen zerga egoitza Gipuzkoan dagoelako.

e) Foru Aldundiak txostena igorri dio Ikuskaritzari bere uzia babesteko eta txosten horretatik atera ditugu honako datu hauek:

1) (ENTITATEA 1), S.L.ren egoitza soziala bat dator (Entitatea 2), S.L. aholkularitzaren zerga egoitzarekin, eta lehen entitatea bigarrenaren bezero da aldi berean. Ikuskaritzak egindako bisitan egiaztatu zen lokala (Izena eta abizenak 3) jaunaren titulartasunekoa dela eta jarduera aholkularitza horren izenean eta horren kontura burutzen duela; egiaztatu zen ez dagoela inolako bulego edo gelarik (ENTITATEA 1), S.L. entitatearentzat horren administratzaileak entitate horren kudeaketa eta zuzendaritza burutzeko. Halaber, lokalean ez dago (ENTITATEA 1), S.L. identifikatzeko plakarik edo bestelakorik. Horrez gain, ez dago lokal horren inguruko inolako errentamendu edo lagapen kontraturik aholkularitzaren eta Construcciones Lizarte, S.L.ren artean. (Entitatea 2), S.L. aholkularitzak (ENTITATEA 1), S.L. entitatearengandik jasotzen ditu zerga, lan eta kontabilitate arloan ematen dizkion zerbitzuengandik dagozkion ordainsariak; zerbitzu horiek ematen zizkion 2002an egoitza soziala aldatu aurretik ere.

2) Entitatearen negozioak zuzentzeaz (Izena eta abizenak 1) administratzailea arduratzen da eta zerga egoitza eta ohiko etxebizitza Iruñean ditu.

3) Sozietatearen eragiketa guztien kontabilitatea eta erregistroa Lizárraga Artola jaunaren etxebizitza partikularretik eramaten da eta han gordetzen dira eragiketa horiek egiaztatzeko beharrezko egiaztagiriri eta aurrekari guztiak ere; etxebizitza hori, arestian esan den moduan, Iruñean dago. Bertatik jaulkitzen ditu sozietateak burututako eragiketen fakturak eta egoitza horretan jaso eta erkatzen dira burututako erosketa eta gastuengatik jasotako fakturak. (Entitatea 2), S.L. aholkularitzak (ENTITATEA 1) S.A.ren dokumentu batzuk soilik egiten ditu hark emandako datuetatik abiatuta, eta jarduera hori inola ere ezin da enpresa horren kudeaketa eta negozio zuzendaritzatzat jo.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
37/2008	R20/2011	2011/07/26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Nafarroako Foru Erkidegoa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

4) Nafarroan bizi da (ENTITATEA 1) S.A.ren beste bazkide eta administratzaile solidarioa ere, eta hori elementu garrantzitsua da sozietatearen negozioen zuzendaritza benetan non buru daitekeen baloratzeko.

5) Nafarroako Gobernuak, zergadunaren ordezkariak egoitza aldatzeko espedientean adierazi zuena bere eginda, mantentzen du enpresaren kudeaketa eta zuzendaritza nahitaez Gipuzkoan egin behar dela, lurralde horretan egiten direlako obra guztiak. Argudio horri aurka eginez, Gipuzkoako Foru Aldundiak mantentzen du gauza bat dela sozietatearen negozioak zuzentzea eta bestea obra bakoitzaren kudeaketa bera. Nafarroako Gobernuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak diotenaren arabera, bi gauza horiek nahasten ditu. Nafarroako Gobernuaren tesiak esan nahi du hainbat zerga egoitza daudela, burututako obren sustapenak hainbeste. Gipuzkoako Foru Aldundiak baieztatzen du burututako jardueran (eraikuntza, konponketa eta kontserbazioa) ohikoa dela egoera batzuk obrak burutzen diren lekuan gertatzea, baina horregatik ez dela ulertu behar sozietatearen beraren zuzendaritza eta kudeaketa dagokion obran burutzen denik.

6) Nafarroako Zerga Ikuskaritzako Zerbitzuak berak onartzen du 2004. urtearen amaieran, (ENTITATEA 1), S.L. sozietateak egoitza soziala Beasaingo Juan Iturralde kaleko 5. zenbakiko behetik (Entitatea 2), S.L. aholkularitzaren egoitzara aldatu zuela, Martina Maiz kaleko 4. zenbakiko (Beasain) lokal propio batera; Gipuzkoako ogasunak ulertzen du, baldintzak beteko balira, onartu ahal izango litzatekeela sozietatearen zerga egoitza gisa.

f) Frogatutako egitateek adierazten dute (ENTITATEA 1), S.L.ren zuzendaritza eta kudeaketa, adierazitako aldian (2002ko abenduaren 30etik 2004ko abenduaren 17ra) Nafarroan burutzen dela, eta ez Gipuzkoan, bi administratzaile solidarioek egoitza Nafarroan baitute, eta Gipuzkoako egoitza, benetan, aholkularitzarena dela –horren bezero da eta egoki diren ordainsariak ordaintzen ditu–; beraz, onartu daitekeen gauza bakarra da aholkularitzan Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak burutzeko zenbait dokumentu egiten direla, baina ez entitatearen benetako zuzendaritza, eta, gainera, (Entitatea 2), S.L. aholkularitzak ukatu egiten du inolako loturarik dagoenik. Laburbilduz, Gipuzkoako Foru Aldundiak baieztatzen duen moduan, (ENTITATEA 1), S.L.ren negozioen kudeaketa eta zuzendaritza administratzaile baten egoitzan burutzen

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
37/2008	R20/2011	2011/07/26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Nafarroako Foru Erkidegoa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

da, egoitza hori baita sozietatearen jardunerako erreferentzia puntua, bertan gordetzen dira haren eragiketak egiaztatzeko beharrezko aurrekari eta egiaztagiri guztiak (kontabilitatea, erregistro liburuak, bilera aktak, etab.).

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

Aitortzea (ENTITATEA 1), S.L. (IFK: 831146061) entitateak 2002ko abenduaren 30etik 2004ko abenduaren 17ra Nafarroako Autonomia Erkidegoan izan duela zerga egoitza.